

## European Network of Ombudspersons for Children (Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarea)

**EBko mugetan haur eta nerabe migratzaileak<sup>1</sup> babesteari buruzko ad hoc adierazpen instituzionala, Migrazioari eta Asiloari buruzko EBko Itunaren onarpena kontuan hartuz**

\*ENOCen 2024ko abenduaren 13ko ezohiko Batzar Orokorrak onartua

### Sarrera

Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sareak (ENOC) behin eta berriz eta etengabe adierazi du bere kezka; eta zenbait gomendio eman ditu "migrazio-egoeran dauden adin txikiei" buruz eta nazioarteko eta eskualdeko araudiarekin bat etorritik haien eskubideen babesa areagotzeko beharrari buruz.

Honako hauek gogoraraziko ditugu: ENOCen 2006ko adierazpen instituzionala, bidaidetik gabeko adin txikien tratuari dagokionez estatuak dituzten betebeharrari buruzkoa; ENOCen 2013ko adierazpen instituzionala<sup>2</sup>, "Migrazio-egoeran dauden adin txikiak" gaiari buruzkoa; ENOCen 2019ko adierazpen instituzionala, Mediterraneoko erreskate-ontzien barruan dauden adin txiki migratzaileen egoerari buruzkoa; ENOCen 2019ko adierazpen instituzionala, "Migrazio-egoeran dauden adin txikien atxilotetari amaiera emateko" asmoari buruzkoa; ENOCen 2020ko gutun irekia, Grezia eta Turkia arteko mugan eta Greziako uharteetan kanpamentuetan harrapatuta dauden adin txiki migratzaileek bizi duten larrialdi-egoerari buruzkoa; 2021eko adierazpen instituzionala, "Itzulketen testuinguruan migrazio-egoeran dauden adin txikien giza eskubideen urraketak" gaiari buruzkoa; eta ENOCen 2022ko adierazpena, Ukrainako gerratik ihesi doazen adin txikien eskubideen babesari buruzkoa.

2015az geroztik, milioika haur eta nerabe iritsi dira Europara segurtasun eta babes bila. 2020az geroztik, adin txikien 800.000 asilo-eskabide berri baino gehiago erregistratu dira EB+eko herrialdeetan; eta horietatik 113.000 baino gehiago bidaidetik gabeko edo beren familiengandik bananduta dauden adin txikiei dagozkie<sup>3</sup>. Europar Batasuneko (EB) estatu kideak Migrazioari eta Asiloari buruzko Ituna aplikatzeko prestatzen ari diren honetan, haur eta nerabe horien eskubideak benetan babesten direla ziurtatzeko berme eraginkorrak ezarri behar dira.

<sup>1</sup> Arartekoak, ingelesezko "children on the move" kontzeptuaren itzulpenean, testuan zehar bereizi gabe "haur eta nerabe migratzaile" terminoa zein "migrazio-egoeran dauden adin txikiak" terminoa erabiltzea erabaki du, nazioarteko mugak zeharkatzen dituzten eta adierazpen honetan jorratzen den Migrazioari eta Asiloari buruzko Itunak beren eskubideei eragin diezaiekeen haur talde hori aipatzeko.

<sup>2</sup> Honako honetan definitzen den bezala: ENOCen posizio-adierazpena, "[Iragaitzazko adin txikiak](#)" gaiari buruzkoa, [ENOCek](#) 2013ko irailaren 27an Bruselan egindako [Urteko 17. Batzar Orokorrean onartua](#).

<sup>3</sup> ACNUR, UNICEF eta MNE, [Refugee and Migrant Children in Europe – Accompanied, Unaccompanied and Separated 2021](#)

## Esparrua

EBk haurren eskubideak eraginkortasunez babesteko betebeharrak irmoa du, Europar Batasunaren Tratatuaren (EBT) 3. artikuluan, EBko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren (EBOEG) 24. artikuluan, Haurren eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren (HEK), eta 6. ohar orokorraren (2005) (bidaidarik gabeko eta beren jatorrizko herrialdetik kanpo familiagandik bananduta dauden adin txikiei emandako tratuari buruzkoa) eta 14. ohar orokorraren (adin txikiak bere interes gorena lehentasunezko kontsiderazioa izateko duen eskubideari buruzkoa) arabera. Horiek migrazio-egoeran dauden adin txikiei dagokienez Ituna aplikatzean EBko estatu kideentzat baimendutako interpretazio-iturri izango dira.

## Haurren eskubideen arau-hauste larrien kasuak Europako mugetan

EBko mugako pasabideetan adin txikien aurkako indarkeria ondo dokumentatuta dago. Haurrek eta nerabeek jipoiak, larderia, ondasunen lapurreta, atxiloteta arbitrarioak, itzultzeak eta beste abusu mota batzuk jasan dituzte modu sumarioan<sup>4</sup>. Indarkeriak eta tratu anker eta apalesgarriak zuzenean urratzen dituzte Europako estatuen nazioarteko betebeharrak (Haurren eskubideei buruzko Konbentzioaren, Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioaren, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenaren eta nazioarteko beste tresna juridiko batzuen xedapenetatik datozenak).

Sarritan, haurrei eta nerabeei indarkeriazko itzultze kolektiboak egiten zaizkie, haien segurtasuna eta ongizatea kontuan hartu gabe, eta banakako asilo-prozedurarako edo bestelako babes-moduetarako irispiderik gabe. Jardunbide hori zabal dokumentatu da Europa osoan<sup>5</sup>: "Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren (GEEH) 2. [...] eta 3. [...] artikuluetan jasotzen den itzultzeko debekua erabatekoa da"<sup>6</sup>. Eta migratzaileen kanporatze kolektibo oro, GEEHren 4. protokoloaren 4. artikuluan definitzen den bezala, bertan behera utzi behar da, bereziki errefuxiatuen eta migratzaileen kategoria bereziki zaurgarri dagokienez, adin txikien kasuan gertatzen den bezala.

Gainera, bai Europako mugetan, bai estatu askotako lurraldeetan, migrazioarekin lotutako atxilotetak egin ohi zaizkie haurrei<sup>7</sup>. 2024ko maiatzean, NBEko Haurren Eskubideen Batzordeko presidente hautatuak eta NBEko itun eta prozedura berezien organoak gainbegiratzeko beste mekanismo batzuek EBko estatu kideei eskatu diete EBko Migrazioari buruzko Itunaren testuinguruan haur eta nerabeak immigrazio-arrazoiengatik atxilotzea debekatzeko. Adierazi dute, eskualde-debeku bateraturik ezean, EBko estatu kideek esplizituki debekatu behar dutela beren legedi nazionalean adin txikiak immigrazio-arrazoiengatik atxilotzea<sup>8</sup>. Adin txikiaren interes gorena eta bidaidarik gabeko adin txiki

<sup>4</sup> Europako Kontseilua, [Pushed beyond the limits: Four areas for urgent action to end human rights violations at Europe's borders](#).

<sup>5</sup> UNICEFen adierazpena, [UNICEF deeply concerned about instrumentalisation and pushbacks of children on Europe's borders](#).

<sup>6</sup> Europako Kontseilua, [Letter to the Prime Minister of Poland by Michael O'Flaherty, CommHR/MoF/sf 074-2024](#).

<sup>7</sup> OIM, ACNUR eta UNICEF, [Safety and dignity for refugee and migrant children: Recommendations for alternatives to detention and appropriate care arrangements in Europe](#).

<sup>8</sup> Nazio Batuak, [Child immigration detention must be prohibited following adoption of EU migration and asylum pact, UN experts say | OHCHR](#), prentsa oharra, 2024ko maiatza; M.H. eta beste batzuk versus Kroazia, [15670/18](#) eta [43115/18](#) zk., § 236, 2021eko azaroaren 18a; Torturaren eta Zigor edo Tratu Anker edo Apalesgarrien Prebentziorako Europako Batzordea (TPB), [Greziako Gobernuari egindako txostena, TPBk 2023ko azaroaren 20tik abenduaren 1era Greziara egindako bisitari buruzkoa, TPB/Txost. \(2024\) 21](#).

migratzaileekiko adin txikitasun-presuntzioaren printzipioa errespetatu egin *behar dira* estatuko agintariekin izandako lehen harremanetik <sup>9</sup>; adin txikiaren muturreko zaurgarritasunak, berriz, faktore erabakigarria izan behar du eta migratzaile irregularraren izaerari buruzko gogoeten gainetik gailendu behar du<sup>10</sup>.

### **Migrazioari eta Asiloari buruzko EBko Itunak kezka pizten du Europako mugetan hurrek eta nerabeek jasotzen duten tratuagatik**

Migrazioari eta Asiloari buruzko EBko Itunak (Ituna), 2024ko apirilaren 10ean onartuak, hainbat neurri sartzen ditu, migrazioa modu eraginkorragoan kudeatzea xede badute ere, oharkabean Europako mugetan arbuioak eta indarkeria areagotzea ekar dezaketenak, eta, hala, migrazio-egoeran dauden adin txikiei eragin diezaieketenak (baita bidaidetik gabeko eta beren familiengandik bananduta dauden haur eta nerabeei ere). Kanpo-mugetako kontrolak indartzean eta mugetako prozeduren azkartasunean enfasia jartzeak presio egin liezaieke estatu kideei gurutzatze irregularrei modu erasokorragoan heltzeko; eta, hala, behartuta lekualdatutako adin txikiak atzera botatzera ere irits litezke, haiei asiloa eskatzen utzi gabe. Immigratzaileek beren jatorrizko edo iragaitzako herrialdeetara egindako itzuleren eraginkortasuna eta kopurua hobetzea ere badu ardatz itunak. Enfasi horrek estatu kideak itzultze-ekintzak egitera bultzatzen litzake, kanporatze formalak dakartzaten prozesu konplexuak saihesteko modu gisa.

Gainera, itunak asilo-eskatzaileak estatu kideen artean modu bidezkoagoan banatu nahi baditu ere erantzukizunak banatzeko mekanismoen bidez, mekanismo horiek aplikatzeko zailtasunen ondorioz, lehen sarrerako estatuak kanporatzea erabiltzera jo dezakete, iritsiera-kopuru handia dela-eta beren burua gainezka eginda ikusi ez dezaten. Gainera, itunak "hirugarren herrialde segurua" kontzeptuaren aplikazioa zabaltzen du; asilo-eskatzaileak "babes eraginkorra" ematen dutela uste den herrialdeetara itzultzea ahalbidetzen du kontzeptu horrek. Hala ere, estatuak zentzu zabalean interpreta lezakete hori, ondoko herrialdeetara egindako itzultzeak justifikatzeko, adin txikiaren interes gorena eta adina behar bezala ebaluatu gabe, eta, hori egitean, adin txikiaren segurtasuna eta bizirauteko eta ahalik eta garapen-mailarik handiena izateko duen eskubidea bermatzeko betebeharra urra lezakete.

Itunean aplikazio-mekanismo argirik ez egoteak kezka sortzen du mugetan giza eskubideak babesteari buruz. Gainbegiratze eta kontu-emate sendorik gabe, estatu kideek atzera egin lezakete ia ondorioz gabe. Gainera, ituna mugetako asilo- eta itzultze-prozeduren azkartasunean zentratzeak asilo-ebaluazioen zehaztasuna arriskuan jar lezake, eta, horren ondorioz, pertsonak —haurrak eta nerabeak barne— erbestera izan litezke beren eskubideak behar bezala aztertu aurretik. Prozedura azkartuak aplikatzen dira, berme mugatuagoekin, eskatzaileen nazionalitatearen, migrazio-ibilbidearen edo sarrera-puntuaren arabera, eta, horren ondorioz, apelazio-eskubidea ez da oso errealista asilo-

<sup>9</sup> *Darboe eta Camara versus Italia*, [5797/17](#) zk., §§ 139 eta 153, 2022ko uztailaren 21a.

<sup>10</sup> *Mubilanzila Mayeka eta Kaniki Mitunga versus Belgika*, [13178/03](#) zk., § 55, GEEA 2006-XI; *Darboe eta Camara*, § 173; *Muskhadzhiyeva eta beste batzuk versus Belgika*, [41442/07](#) zk., §§ 55 eta 63, 2010eko urtarrilaren 19a; *Kanagaratnam versus Belgika*, [15297/09](#) zk., § 62, 2011ko abenduaren 13a; eta *Popov versus Frantzia*, [39472/07](#) zk., § 91, 2012ko urtarrilaren 19a; N.T.P. eta beste batzuk versus Frantzia, 68862/13 zk., § 44, 2018ko maiatzaren 24a; besteak beste.

eskatzaileentzat (haurrentzat eta nerabeentzat barne); gainera, epaiketa justu bat egitea ere arriskuan jar daiteke, eta mehatxu gehiago sor daitezke haurren eskubideentzat.

Krisi-egoeretan, instrumentalizazioa edo *ezinbestea* estatu kideen esku uzten da, eta horrek aukera ematen die ituneko arauari salbuespenak ezartzeko, baldintza espezifikoetan eta beren interpretazioaren arabera. Ez dago argi zer prozedura aplikatuko diren horien ordez, baina barne har lezakete pertsonari (adin txikiei barne) sarbidea ukatzea mugetan, edo beste araubide mota bat aplikatzea, berme prozesal mugatuak eta baldintza material murriztuak dituen mugako asilo-prozedura baten bidez iristen diren pertsona guztiei izapideak eginez.

Itunaren alderdi horiek itzultze gehiago, *de factoko* atxiloketa gehiago eta, azken batean, migrazio-fluxuekiko mendekotasun handiagoa gertatzeko probabilitatea areagotzen dute; izan ere, estatu kideek lehentasuna eman diezaiekete disuasioari, mugak ixteari eta itzultze azkarrei, haur migratzaileen eskubideak babestearen eta asilo-prozeduretarako irispidearen aurrean.

### **Migratioari eta Asiloari buruzko EBko Itunak bidaidetik gabeko adin txikien egoera okertu dezake mugetan, hainbat arrazoiengatik**

Itunak ezarritako prozesuak eta egiturak bidaidetik gabeko adin txikiak babesteko pentsatuta daude, baina, egia esan, ez da oso probablea Europan segurtasuna eta babesa bilatzen duten adin txikien giza eskubideen urraketa eragozte horiek. Itunak mugako prozedura azkartuak txertatzen ditu, immigratzaileak azkar auzipetzeko eta itzultzeko direnak. Prozesu azkartu horiek, beharbada, ez dituzte behar bezala kontuan hartuko bidaidetik gabeko adin txikien identifikazioa eta haien adinaren (eta, beraz, haien premien eta zaurgarritasun espezifikoaren) zehaztapena; eta horrek beren asilo-eskabideak eta babes-beharrak behar ez bezala kontuan hartzea dakar, edo, are gehiago, haiek familia-bateratetik kanpo uztea. Mugetako kontrolean eta izapidetze azkarrean enfasia jartzeak atxiloketak areagotzea ekar dezake, baita bidaidetik gabeko adin txikienak ere<sup>11</sup>.

Lehen sarrerako herrialdeek iritsieren "presioaren" eraginpean jarraitzea litekeena denez, erantzukizunak banatzeko eta elkartasunerako mekanismo berriak erabat eta eraginkortasunez operatiboak izan arte, oraindik ere arriskua dago mugetan beren eskubideen arbuio eta urraketan salaketa etengabeek jarraitzeko eta potentzialki ugaritzeko.

Erantzukizunak banatzeko eta elkartasunerako itunak aurreikusitako mekanismoak benetan eraginkorrak izan ezean, itunak ez du konponduko lehen sarrerako estatuen gaineko "presioa". Mugetan giza eskubideen urraketak gertatzeko eta asiloa eskatzeko eskubidea are gehiago higatzeko arriskua arintzeko, giza eskubideen berme nahikoak ezarri behar dira; tartean direla gainbegiratze-mekanismo eraginkor eta independenteak, zaurgarritasunaren ebaluazio arretatsuak eta egokitutako zerbitzuetara azkar bideratzea (hala nola haurrak babesteko eta osasun-laguntzarako zerbitzuetara), informazio kritikoa eta laguntza juridikoa ematea, eta ustezko tratu txarren ikerketa nazional azkar eta eraginkorrerako sistemak. EBk eta bertako estatu kideek lehentasuna eman behar diete inbertsio ekonomiko eta operatiboei, asilo- eta harrera-sistema nazionalak behar bezala

<sup>11</sup> Alde horretatik, EBko estatu kideek kontuan hartu behar dute [6. ohar orokorra, bidaidetik gabeko eta beren jatorrizko herrialdetik kanpo bananduta dauden adin txikien tratuari buruzkoa \(2005\), CRC/GC/2005/6](#), bidaidetik gabeko adin txikiei dagokienez ituna aplikatzean baimendutako orientazio-iturri gisa.

baliabidez hornitzeko. Jendea Europara iristetik kostatuta ahala kostatuta aldentzen saiatu beharrean, pertsonen oinarrizko eskubideak eta duintasuna defendatzen jarri beharko lukete arreta estatuek.

Hala ere, legeria nazionala itunaren betekizunetara egokitzean, **estatuak zaindu behar dute mugak zeharkatuta lekualdatzen diren haur eta nerabeen babesari buruzko printzipio hauek errespetatzen direla:**

- **Haur guztien eskubideak errespetatu, babestu eta bete egin behar dira, haien izaera edozein dela ere, inolako diskriminaziorik gabe.** Horren barruan sartzen dira lurraldean sartzeko berdintasuna, asiloa, harrera-zerbitzuak eta legearen aurreko babesa.
- **Adin txikiaren interes gorenak lehentasunezko kontsiderazioa izan behar du haur eta nerabe migratzaileei** (baita bidaidarik gabekoei eta familiagandik banandutakoei) **buruzko ekintza guztietan.** Printzipio horrek erabaki guztiak gidatu behar ditu, baita muga-kontrolarekin, mugetako langileek emandako tratuarekin, asilo-prozedurekin eta itzultzeekin lotutakoak ere<sup>12</sup>.
- **Identitaterako eskubidea errespetatu behar da,** bermatuz Europako mugak zeharkatzen dituzten haur eta nerabe guztiak identifikatuta, dokumentatuta eta erregistratuta daudela.
- **Lekualdatzen diren haur eta nerabe migratzaileek ingurune abegikor eta integratzaile batean bizitzeko aukera merezi dute.** Beraz, estatu hartzaile guztiek, identitaterako eskubidea errespetatzeaz gain, politika eraginkor eta integratzaileak aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte.
- **Haur guztiek dute bizitzari, biziraupenari eta garapenari datzekien eskubidea.** Estatuak uko egin behar diote eskubide hori arriskuan jartzen duten neurriak hartzeari, edo eskubide hori urratzea ekar dezaketen baldintzen eraginpean jartzen dituzten neurriak hartzeari, baita eskubide hori bermatu ezin den hirugarren herrialdeetara legez kanpoko itzultzeak edo deportazioak eginez ere.
- **Haurrek eskubidea dute eragiten dieten gai guztietan beren iritzia adierazteko** eta beren adinaren eta heldutasunaren arabera iritzi horiek besteek behar bezala aintzat har ditzaten. Mugetako prozedurek kontuan hartu behar dituzte haurren beharrak, eta haien parte-hartzea nabarmen erraztu behar dute.
- **Adin txikiak torturaren eta tratu anker edo apalesgarriaren aurka babestuta egon behar dute une oro,** giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen arabera. Migrazio-egoeran dauden haurren aurkako edozein indarkeria-, abusu- edo derrigortze-mota zorrotz prebenitu eta zigortu behar da, estatuak haur eta nerabe guztien eskubideak errespetatzeko eta babesteko dituzten betebeharrekin bat etorritik.
- **Estatuak bermatu behar dute traumak eta tratu txarren esperientzia duten haur lekualdatu guztiak** benetan identifikatuak izango direla eta beren premia espezifikotara egokitutako arreta mediko eta psikologikoa jasoko dutela.

<sup>12</sup> Ildo horretan, nahitaezkoa da EBko estatu kideek kontuan hartzea [14. ohar orokorra, haurrak bere interes gorena lehentasunezko kontsiderazioa izateko duen eskubideari buruzkoa \(2013\), CRC/CG/14](#), EBko Itunaren testuinguruan interes gorenaren printzipioa/eskubidea aplikatzean baimendutako orientazio-iturri gisa.



- **Haur eta nerabe migratzaileak ez dira inoiz atxilotu behar**, ezta askatasunaz gabetu ere, migrazioarekin zerikusia duten arrazoiengatik (beren migrazio-egoera edo beren erreferente helduen egoera barne). Adin txiki migratzaileak eta asilo-eskatzaileak beren migrazio-egoeratik edo beren erreferente helduen egoeratik atxilotzea ez dator inoiz bat haurraren edo nerabearen interes gorenarekin, eta beti da haren eskubideen urraketa<sup>13</sup>. Lekualdatutako haurren migrazio-atxiloketa eragiten duten politikak eta jardunbideak desagerrarazi egin behar dira (baita *de factokoak* ere). Atxiloketaren alternatibak bilatu behar dira; eta adin txikiak eta familiak ingurune seguruetan kokatu behar dira, familiarik kanpoko helduengandik bereizita, arreta egokia, elikadura eta zerbitzuetarako irispidea (hezkuntzarako irispidea barne) bermatzeko.

- **Migrazio-egoeran, lekualdatuta edo iragaitzan dauden haur eta nerabeak ez dira inoiz itzuli behar.**

Adin txiki guztiei eman behar zaie aukera lurralde batean sartzeko, asiloa eskatzeko eta beren kasua banaka ebaluatuko dela eta behar bezalako kontsiderazioa jasoko duela bermatzeko. EBko kanpo-mugetako eragiketa guztiek errespetatu behar dute ez itzultzeko printzipioa eta itsasoan arriskuan dauden pertsonak erreskatatzeko nazioarteko betebeharra<sup>14</sup>.

- **Familiak elkartuta mantentzen eta bidaidetik gabeko adin txikiak beren familiarekin biltzen ahalegindu behar da, betiere adin txikiaren interes gorenerako bada.** Ahaleginak egin behar dira haur eta nerabe guztiak edo hala direla diotenak ahalik eta lasterren identifikatzeko, eta honako hauek errespetatzeko: adina ebaluatzeko diziplina anitzeko ikuspegiaren betebeharra; familiarengandik ez bereizteko eskubidea; azterketa mediko intrusiboen erabilera minimizatzea; eta bidaidetik gabeko haur guztiek iritsiera-puntuari izendatutako ordezkarik kualifikatu bat izango dutela bermatzeko betebeharra, atzerapenik eta aurretiazko baldintzarik gabe, beren eskubideak babesteko funtsezko urrats gisa.
- **Harrera-sistemek** eraginkorrak izan behar dute, eta erabat prestatuta egon behar dute haur eta nerabe migratzaileen eta lekualdatuen behar espezifikoak erantzuteko.
- **Babes gehigarriak ezarri behar dira bereziki zaurgarriak diren haur eta nerabeentzat (hala nola bidaidetik gabekoentzat eta beren familiengandik bereizita daudenentzat, desgaituentzat, gizakien salerosketaren biktimentzat edo zainketa mediko bereziak behar dituztenentzat).** Beren premia espezifikoak azkar, segurtasunez eta eraginkortasunez ebaluatu, identifikatu eta landu behar dira. Bidaidetik gabeko 18 urtetik beherakoak ez dira helduentzako harrera-zentroetan sartu behar, ezta beren adina ebaluatzeko prozesu batetik pasatzen ari diren bitartean ere.
- **Haurrek eta nerabeek modu eraginkorren eta luzamendurik gabe izan behar dute irispidea honako hauei buruzko informazio zehatz eta beren adinari egokitura: beren eskubideak; eskura dituzten defentsa- eta berrikuspen-mekanismoak; prozedura batek zer dakarren (iraupena eta lekua, laguntza-zerbitzuak, izan daitezkeen emaitzak eta ondorioak); eta babes-neurrien, konponketa-mekanismoen eta prozeduran zehar egon daitezkeen beste edozein**

<sup>14</sup> [Itsasoan giza bizitza segurtatzeko Nazioarteko Hitzarmena \(SOLAS\), 1974;](#) eta [Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa, 1982ko abenduaren 10ekoa](#)

zerbitzuren eskuragarritasuna<sup>15</sup>. Interpretateak edo kultura-bitartekariak kontratatu beharko dira, bermatzeko hurrek behar duten informazio guztia haien ulergarria den moduan eta beren adinari eta heldutasunari egokituta jasoko dutela; eta laguntza/aholkularitza eta doako ordezkartza juridikoa ere eman beharko zaie. Mekanismo eraginkorrak egon behar dira mugetan barrena lekualdatzen diren hurrek jasotzen duten tratua ikuskatzeko; hala, giza eskubideei buruzko nazioarteko eta eskualdeko arauak betetzen direla bermatuko da.

- **Erakunde independenteek autoritatea izan behar dute hurren eta nerabeen eskubideen urraketak ikertzeko, igortzeko eta horiei heltzeko, mugetako zaintza-mekanismo independenteen bidez, kontrol- eta muga-prozeduretan.** Nazio Batuen Hurren Eskubideen Batzordeak eta NBEko beste aditu batzuek adierazi dute prest daudela estatu kideei mekanismo independente horiek lehenbailehen sortzen laguntzeko eta haiekin elkarlanean aritzeko<sup>16</sup>. Estatuak bermatu behar dute adin txikiek justiziarako eta baliabide eraginkorretarako irispidea izango dutela, beren egoera edozein dela ere, eta ahaleginak egin behar dituzte eskubideen urraketen zigorgabetasunarekin amaitzeko.
- **Estatu kide bakoitzak bitarteko egokiak eta laguntza egokia eman behar dizkie mugetan giza eskubideak zaintzeko erakundeei<sup>17</sup>,** bai berriak badira, bai lehendik badaude, adin txikiaren interes gorenaren printzipioa eta mugetako kontrol- eta asilo-prozeduretan behar diren bermeak betetzen direla bermatzeko.
- Mugazainek, immigrazioko funtzionarioek, gizarte-zerbitzuek eta **haur migratzaileen harreran eta izapideetan parte hartzen duten langile guztiek** hurrei egokitutako informazioari, **hurren eta nerabeen eskubideei eta babes-estandarrei buruzko prestakuntza jaso behar dute,** kasuak modu egokian eta gizatasunez izapidetzen dituztela bermatzeko.

<sup>15</sup> Europako Kontseilua, [Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen jarraibideak hurrei egokitutako justiziar buruz, 2011.](#)

<sup>16</sup> *Ibid.* 7

<sup>17</sup> [2024/1356 \(EB\) Erregelamenduaren 10. artikulua](#) eta [2024/1348 \(EB\) Erregelamenduaren 43. artikulua](#)ren 4. atala.